

1 ARABA

Aguaque ur-jauzia



Ingurumen-garrantzia

Sabando erreka Ega ibaiaren adarra da. Ibai ertzeko landaretzak bost eta hogei metroko zabalera du, nahiz eta uberkan zehar aldaketak egon, nekazaritza-erabilpenak direla eta. Berebiziko edertasuna duen erreka da, ertzetan askotariko zuhaitzak dituena: ametzak, pagoak, arteak (*Quercus*

rotundifolia), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), altzak (*Alnus glutinosa*) eta sahatsak (*salix spp.*). Basopeak uretan itzal ederra emateaz gain, korridore ekologikotzat funtzionatzen du eta interes botanikoa ez ezik, espezie askoren habitat ezin hobea dugu: Besteak beste, ur-ipurtatsa (*Mustela*

lutreola), igaraba (*Lutra lutra*) eta loina (*Parachondrostoma miegii*). Bestalde, txontaren familiako ugari ere aurki genitzake: txonta (*Fringilla coelebs*), txorrua (*Carduelis chloris*), karnaba (*Carduelis carduelis*), txoka (*Carduelis cannabina*) eta txirriskila arrunta (*Serinus serinus*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 2,1 km



45 min



Ubideraino
hurbiltzeko BTT



Udalerria:
Campezo

Hurbileko herria:
Antoñana



Ibaia:
Sabando

Arrisku faktore bat baino gehiago dago.

Ur-jauzira heltzeko, arreta handiz zeharkatu behar da ibaia



678 m



103 m



597 m



25 m





Aguaque ur-jauzia



Non dagoen eta nola heldu

Aguaque ur-jauzia, Sabando ibaian, Kanpezu udalerriko Antoñanako lurretan dugu, Arabako Lurralde Historikoaren hego-mendebaldean. Ibilbidea herri horretan hasten da. Horretarako, Gasteitik Kanpezura doan A-132 errepidea hartuko dugu.

Ibilbideari Antoñanatik ekingo diogu. Hirigunetik hasita, NW norabidea hartuko dugu, eta Las Eras de Arriba kalearen ondoren, eliza atzean utzirik, Sabando eta Oteoko errotarako errepidea hartuko dugu.

Laurehun bat metro eginda, errepidearen eskuin aldetik hasten den bidexka bati ekingo diogu. Hasiera BTT (bigarren ibilbidea) baliza batez seinalatuta dago, non ur-jauzirainoko bidea adierazita dagoen. Bidexkan zehar, lehenengo zatian nahiko erregularra bera, astalarrosak, ametzak, arkakaratsak, ipuruak eta elorriak goza ditzakegu.

Aurreraxeago, pagoen protagonismoa nabari den basoan zehar, bidegurutzetara helduta, eskuineko bidetik joko dugu, lurzoruan irekita dagoen ubide txiki baten alboz albo, non Antoñanako baratzeak ureztatzen diren urak doazen.

Handik aurrera, bidexka estu bati jarraituko diogu eta Sabando ibaiaren ohe den kareharritzko egitura ikusiko. Ibilbidean zehar, uraren soinuak salatuko digu ibai gertu dugula gure eskuinera. Ibaia zeharkatu beharra dago, haitzartean, osin baten gainean amiltzen den ur-jauzia antzemateko.

Inguruetan, ibaiaren eskuin aldean atsedon-gune bat dugu. Bertatik goza dezakegu kontserbazio egoera ona duen ibai tarte hori. Itzulerako bidea ibilbide beretik egin daiteke, edo bestela, ibaiaren ibilbideari jarraituta, beraren ezker aldean zehar doan bidexka batetik. Aukera horrek ur-jauziak eta osin txikiak gozatzeko parada ezin hobea eskainiko digu.


Kilometro bat, gutxi gorabehera, egin eta gero, Oteoren eta Antoñanaren arteko lur-biltze pistan helduko gara. Bertatik, Izki mendien ikusgarritasuna izango dugu begien aurrean. Pista horretan zortziehun bat metro egin eta gero, Antoñanako hirigunera garamatzaten karriketako bat har genezake.

Edozein garaitan egin daiteke, baina euri-sasoian eta izotzak urtzean, ibaiaren emaria handia izaki, ur-jauzia eta osina gozatzeko parada ezin hobea da.

Deskargatu
ibilbidea:



Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Aguaque ur-jauzia



Aguaque ur-jauzia

